

# Euskaltzaindia: euskararen herri akademia

OLANO ARRESE, Markel  
Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Bizkaiko Aldundiak lehiaketa bat egin zuen, 1888an, Bilboko Institutuan sortua zuen euskara katedran jarduteko irakaslea hautatzeko. Lehiaketa hura Resurreccion Maria de Azkuek irabazi zuen; partaide izan ziren, baita ere, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri, baina Azkue gazteari eman zioten katedra. Esparru akademikoan, katedra hura izan zen euskaran azterketak, hedakuntzak eta sustapenak hartu zuen lehen leku aitzindaria.

Aita Aranaren eraginez eta, batez ere, Azkueren eraginez hasi zen Julio Urkixo euskara ikasi eta ikertzen, Azkue baitzen Urkixotarren kapilaua. Jakina denez, Urkixoren hizkuntzalaritzako lehen ikerketak *Volapük* izeneko hizkuntza artifizialera lerratuak izan ziren, baina laster utzi zituen bazteurrean, hizkuntza unibertsal bat izatea bidera ezintzat harturik, eta euskal ikaskuntzan murgildu zen buru-belarri.

Julio Urkixoren eragina, euskararen erakunde akademiko bat sortzearen alde, oso bizkor adierazi zen: 1906n, Julioaren anaiadun Adolfo Gabriel de Urquijo e Ibarra kondeak, Bizkaiko Aldundiko lehendakari zelarik, eskaera bat aurkeztu zien Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioei, euskararen akademia sor zezaten.

Beraz, esan daiteke Azkueren euskaltzaletasun sutsuarekin batera, Julio Urkixok nazioarteko esparru akademikoekin zituen lotura estuak izan zirela euskararen erakunde akademiko bat sortzeko ezinbesteko osagaiak. Izan ere, Urkixok 1907an, Georges Lacombe-rekin batera sortua zuen *Revue Interna-*

*tionale des Études Basques* aldizkariak bi tradizio intelektual elkarretaratu nahi izan zituen, bertakoa eta kanpokoak, garai hartan Europa mailan euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikaskuntzak sustrai sakonak baitzituen Euro-pako unibertsitateetan eta erakunde akademiko askotan, hein handi batean Wilhelm von Humboldt-ek lehenago eta Luis-Luziano Bonaparte printzeak geroago, XIX. mendean zehar ehundutako sareari esker. Ez alferrik, RIEVen lehen zenbakietatik aldizkariaren lankideen artean ageri dira, besteak beste, Luis-Luziano Bonaparte printza bera, Pere Bosch Gimpera, Karl Bouda, René Lafon, Edward Spencer Dogson, Ramón Menéndez Pidal, Hugo Schuchardt, Henry Gavel, Julien Vinson eta Christian Cornelius Uhlenbeck.

Arturo Campion dago, baita ere, euskararen akademiaren sorreran, euskararen esparru naturalaren arauz eskatu baitzoten lau diputazioek (Arabakoak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak eta Nafarroakoak) Eusko Ikaskuntzari akademiaren sortzea azter zezala. Arturo Campion batek, Nafarroako gaur egungo armarria eta bandera asmatu zuenetako bat izanik, bere kemen guztia ipini baitzuen Euskaltzaindiaren sorreraren abiapuntua izango zen Oñatiko biltzarra antolatzen, 1918an. Bizitza guztian, Campionek gogor lan egin zuen euskal hizkuntzaren eta kulturaren erakundetze bidea urratu eta indartzeko.

Luis Elizalde aipatu beharra dago, azkenik, Euskaltzaindiaren sortzaileen artean. Euskararentzako eredu bateratu baten premia ikusi zuen aitzindarietako bat izan zen, garai haietan haur euskaldunei eskola euskaraz eman behar zitzaiela aldarrikatzen zuen bakarretakoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritza niregan hartzen dudanez ekitaldi honetan, ez nuke isilean utzi nahi, baizik handikiro nabarmendu Euskaltzaindiaren sorrera prozesuan Gipuzkoako Aldundiaren aldetik lan arduratsu eta zentzuz betea egindako Julian Elorza Aizpuru azpeitiarra. Gipuzkoako Aldundiaren buru egin zuelarik 1919tik 1924ra, euskarren sustatzaile eta eragile nagusietako bat izan zela aldarrikatu nahi dut zuen aurrean. 1919ko irailaren 21ean, etxe honetan egin zen euskal akademiaren batzar eratzailea, eta hamabost egunen buruan, 1919ko urriaren 7an, egin zuen Euskaltzaindiak bere lehen bilkura akademikoa, jauregi honetan bertan. Harro gaude gipuzkoar guztiok, gure foru erakundeek euskal akademiarekin betidanik izan duten loturaz.



Horra, beraz, gure erakunde akademikoaren sorrerako haziak erakusten duen altxorretako bat: euskararekiko maitasuna, euskara ikertu eta normalizatzeko grina, euskaren erabilera hedatu edo sustatzeko langintza, *izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea*, Euskaltzaindiaren lehenengo arautegian hitzez hitz agertzen den moduan esanik, ikusmolde kultural zabal batekin daude loturik, ideologiaren edo politikaren ikuspegiez gaindi dagoena.

Franco jeneralaren matxinada militarraren garaipenak historiaren aro ilunenera eraman zuen euskal kultura eta, oro har, Euskal Herria. Eten beldurgarri bat izan zen, euskal gizarte osoarentzat bezala, Euskaltzaindiaren-tzat ere. Hor garaitu zen, lehenagoaz gain, Azkueren irudiaren handitasuna, gerra osteko giro itogarri hartan, aurkari guztiei aurre eginik akademiaren zereginari emeki-emeki lotu zitzaionean. Izan ere, frankismoak euskararen erabilera publiko nahiz pribatuaren aurkako jazarpen saiatu, setati eta sistematikoa ezarri baitzuen. Ez genuke hori ahaztu behar, orraigabetzeak ez baitigu ezertan, ez hizkuntzaren arloan, ez beste arlo publiko edo sozialetan, onik egiten, ez eta laguntzen ere gaur egun euskarak dituen arazoei aurre

egiten. Gehiago ere esango nuke: gure egunotan euskarak, esparru publikoan zein pribatuan, gainditu behar dituen oztopo batzuk oso loturik ikusten ditut gure historia hurbilaren aro zorigaitzoko harekin.

Zail zuen Azkuek akademiari aurrera egiteko bide bat itxuratzen: gerrak zauri sakonak utzi zituen euskal gizartean; erakunde akademiko gehienak ia deseginak ziren, Eusko Ikaskuntza, besteak beste; eta euskaraz egin zitekeen oro gobernari berrien susmo gaitztoen mehatxuapean zegoen. Frederiko Krutwig gaztearen lagunza izan zuen Azkuek, belaunaldi biren arteko lotura eraginez, akademiaren historia laburrean lehen aldiz, maila sinbolikoan bada ere.

Euskal gizartearen nortasuna, kontzientzia eta kultura zulo beltzetik ateratzeko arnabidea bilatzen ari zen heinean, Euskaltzaindiak bere bidea aurkitu behar izan zuen, ingurugiro etsigarri hartan, garai berrietara egokitu beharrez. Azkue hil ostean, Ignazio Maria Etxaide Lizasoain ingeniariek, lehenik, eta Jose Maria Lojendio Irure legegizonak, geroago, lagundu zioten bide hori hartzen, agintari frankistekin izan zituzten lotura guztien gainetik ipinita euskararekiko atxikimendu estua.

Manuel Lekuona oiartzuar apaizak akademiaren buruzagitzaz hartu zuen rako, 1967an, euskal kulturaren berpizte handi bat hausnartzen hasia zegoen gure artean, esparru guztietaan: literaturaren arloan, Andima Ibiñagabeitiaren eraginpean euskarazko liburuak argitaratzen hasi ziren, erbestean lehenbizi, Euskal Herrian geroago; euskarazko irakaskuntza antolatzeko guraso eta irakasle taldeak lanean ziren, gero eta ageriagoan, herri askotan. Orobata, euskara erabilera modernoetarako prestatu beharra gero eta nabarmenagoa zen, behar larria izateraino.

Euskaltzaindiaren buru izatera inoiz iritsi ez zen arren, Koldo Mitxelenaren erreenteriar hizkuntzalariaren zeregina eta garrantzia azpimarratu nahi nituzke, euskara batu eta behar berrietara ongi egokitutako bat sortzeko izan zuen ikuspegি orekatuagatik eta ardurazko adoreagatik, literatur tradizio zaharrari ihes egin gabe, baina, aldi berean, etorkizuneko belaunaldiekin lotura sendoa eginez. Mitxelenak maisuki gidatu zuen euskal akademia modernitatearen bidean barrena, iraganari begiraturik etorkizuna eraikitzekeo. Ez zuen soilik, ordea, *euskara batua* sortu; hori baino gehiago

eragin zuen Mitxelenak: etorkizuneko euskara batuaren bidea ere markatutik utzi zigun. Haren kezka ez zen mugatu «zer behar dugu?» galdera egitera, baizik, horrekin batera, «zertarako behar dugu?» ere galdeztu zion bere buruari.

«Gure Herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarrak gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adina tokia», idatzi zuen Mitxelenak 1978an, «Euskararen bide luze bezain malkarrak» artikulu mami-tsuan. Iruditzen zait Mitxelenak esaldi horretan laburki ipintzen zituen bi baldintzak, euskararen geroari buruz ari garela, ezin gaurkoagoak direla oraindik: handikeriarik gabe, baina ondorengo belaunaldien esku ziurtatzeko behar adinako tokia eman behar diogu euskarari.

Mitxelenari hein handi batean zor diogun euskara batuak mugarri sakon bat ipini zuen euskal lurretan, guk zentzu kultural argi batez *Euskal Herria* deitzen dugun horretan, alegia. Hizkuntza eredu estandar jaso batez gain, kontzientzia berri bat txertatu zuen belaunaldi gazteen artean, euskara aro modernora zabaldu zuen, esparru publiko eta ofizialetan ibiltzeko baimena ekarri zion, aldakuntza sozial eta politikoen harira, eta oinarri irmo bat ipini zuen, XX. mendearren azken hamarkadatan ezagutu genituen garabideak egiazko izan zitezen.

Handik hona, akademiaren historia hurbilago eta ezagunagoa dugu; beraz, ez nuke luze jardun nahi guztion oroimenean bizirik diren kontuez. Zilegi bekit, nolanahi ere den, ohar labur batzuk egitea, Luis Villasante, Jean Haritschelhar eta, gaur egun, Andres Urrutia euskaltzainburuen ardu-rapean akademiak egin dituen urrats nagusien gainean, eta nire iritzi apaLEAN etorkizunean ibili behar lukeen bideaz.

Lehen oharra akademiaren jaidurari dagokio. Euskaltzaindiak bere sorerratik du erakunde irekia izatea, bi zentzutan zabalik egon baita orain 90 urte eratu zenez gerotzik: alde batetik, euskararen lurralteko guztieta gizartearen ikusmolde guztiei leku egin behar die, euskaldun izateko eta sentitzeko modu ugari daudela erakutsirik; eta bestetik, euskaldunen beharrei erreparatu behar die, euskara noranahiko hizkuntza nahi dugunon eskakizunei eta premiei ikuspegii zabal batez erantzun behar die. Euskararen akademiak ezin

du adituen barruti itxi bat izan, baizik gizartearen beharren zerbitzura, adi, erne egon behar du beti, hizkuntzaren garabide egokienak hautatuz, babes-tuz eta landuz.

Bigarren oharra etorkizuneko aukera berriei loturik dago. Urte gutxitan, teknologiek aurrerapauso ikaragarriak egin dituzte, oraintsu arte hizkuntzen trataeran pentsaezinak ziren bitartekoak, aukerak eta eginkizunak zabaltzeraino. Uste dut gure akademiak ezin diela bizkar eman informazioaren eta jakintzaren gizartearen eskakizunei, baizik, alderantziz, hizkuntzaren trataeran teknologiak eman dezakeen laguntza eta ireki ditzakeen bide berriak oso aintzat hartu behar dituela bere jardunean. Urrats handiak egin ditu Euskaltzaindiak urte gutxitan, aitortu beharra dago: akademiaren arauak, hiztegi batua, argitalpen nagusiak, corpus estatistikoa, izendegiak eta abar eskuragarri dira sarean. Gehienetan, eskumen publikoko erabilera baimen bati loturik ipini ditu material guztiok, nik zinez zoriondu nahi nukeen politika ireki bat gauzaturik. Bide horretan sakontzera eta aitzindari izatera dei egin nahi nioke Euskaltzaindiari, XX. mendean euskara batuaren erronka zentzuz eta jakintzaz gainditu zuen gisan, XXI. mendeak ezarri digun erronka berri horri bizkortasunez eta adimenez erantzun diezaion.

Hirugarren eta azken oharra zeregin akademikoetan emakumeek duten partaidetzarekin du zerikusirik. Kontuak gaizki egin ez baditut, 29 euskaltzain osoetatik bost emakume dira gaur egun. Beharbada, ez da asko, baina kopuru labur horrez gaindi, uste dut nabarmendu behar direla, alde batetik, emakumeen ekarpen bizi eta ezinbesteko gaur egungo akademiaren langintzan; eta bestetik, emakumeen partaidetza gero eta zabalagoa, akademiaren maila guzietan. Bide horretan etorkizunean egiten ahal diren urrats guztiak, oreka berdindu edo –nork daki– emakume bat euskaltzainburu ikusteraino, ongi hartuko ditu euskal gizarteak, horretan ez nuke salantzarak egingo.

«Buscar condiciones más favorables, hacer por sacarlas de la nada si es necesario, será menester de planificadores del presente y del futuro, en otras palabras, de políticos en el sentido más amplio de la palabra» utzi zuen idatzirik Mitxelenak 1978an, euskara den bezalako hizkuntza txiki bat aurrera atera nahi dugun politikarioi inoiz ezarri zaigun eginbeharrik zehatzenean.

Gipuzkoako Foru Aldundia ahaleginduko da, atzo bezala gaur eta bihar ere, euskararen erabilera sozialaren aldeko baldintzak aurkitzen, hutsetik sortu behar badira ere, politikaren zentzu zabal hori euskararen esparrura ekartzeko.

1919ko irailaren 21ean Julian Elorza garai hartako Aldundiko presidentek Resurrecion Maria de Azkue euskaltzainburuari utzi zion bere aulkia, batzar areto honetan Euskaltzaindiaren batzar eratzailearen buru izan zedin. Gaur, 90 urteurrenaren ospakizun ekitaldi honetan, Andres Urrutia euskaltzainburua, zeurea duzu Diputatu Nagusiaren besaulkia.



# En el 90 aniversario de la fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca

OLANO ARRESE, Markel  
Diputado General de Gipuzkoa

La Diputación de Bizkaia convocó, en 1888, una oposición para cubrir la plaza de profesor en la cátedra de lengua vasca creada en el Instituto de Bilbao, oposición que fue ganada por Resurrección María de Azkue, y en la que participaron, entre otros Miguel de Unamuno y Sabino Arana Goiri. Aquella cátedra significó el primer hito institucional académico para la investigación, difusión y promoción del vascuence.

Julio de Urquijo comenzó el estudio y la investigación del euskera movido por el padre Arana y el propio Azkue, a la sazón capellán de los Urquijo. Es bien sabido que las primeras investigaciones lingüísticas de Urquijo estuvieron orientadas hacia una lengua artificial, llamada *Volapük*, pero abandonadas bien pronto ante la imposibilidad manifiesta de la expansión de una lengua universal, para dedicarse desde entonces a los estudios vascos.

El impulso de Julio de Urquijo a favor de una institución académica para la lengua vasca se manifestó de forma temprana: ya en 1906, el conde Adolfo Gabriel de Urquijo e Ibarra, hermano de don Julio, siendo presidente de la Diputación vizcaína, cursó una solemne petición a las diputaciones de Navarra, Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, para la creación de una academia de la lengua vasca.

Podemos afirmar, por tanto, que junto con la pasión vascófila de Azkue, los vínculos de Julio de Urquijo con los ámbitos académicos internacionales constituyeron la base inicial sobre la que se sustentó la academia de la len-

gua vasca. La *Revista Internacional de Estudios Vascos*, fundada en 1907 en París por el propio Urquijo y Georges Lacombe, trató de aunar dos tradiciones intelectuales, la local y la foránea, en una época en la que los estudios acerca de la lengua y cultura vascas gozaban de gran reputación en gran parte de los medios académicos europeos, en buena medida gracias a la trama tejida primero por Wilhelm von Humboldt, y más tarde por el príncipe Louis Lucien Bonaparte. No en vano, desde los primeros números de la RIEV figuran entre sus colaboradores personajes de la talla del propio príncipe Louis Lucien Bonaparte, Pere Bosch Gimpera, Karl Bouda, René Lafon, Edward Spencer Dogson, Ramón Menéndez Pidal, Hugo Schuchardt, Henry Gavel, Julien Vinson o Christian Cornelius Uhlenbeck.

Participó también en la creación de la academia Arturo Campión, toda vez que las cuatro diputaciones del ámbito natural de la lengua vasca (la de Álava, la de Bizkaia, la de Gipuzkoa y la de Navarra) habían pedido a la Sociedad de Estudios Vascos (Eusko Ikaskuntza) que analizara la posibilidad de creación de una academia. Un Arturo Campión que, siendo una de las personas encargada de diseñar los actuales escudo y bandera de Navarra, puso todo su empeño en organizar el congreso de Oñati, en 1918, que supuso el punto de arranque en la creación de Euskaltzaindia. Campión trabajó de manera incansable durante toda su vida para favorecer la institucionalización de la lengua y cultura vascas.

Por último, Luis Elizalde, partícipe también de la fundación de la academia vasca, fue uno de los precursores que se anticiparon a la necesidad de una variedad estándar para la lengua vasca, y una de las pocas voces que, en aquel tiempo, reclamaron una enseñanza en lengua vasca.

En mi condición de representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa en este acto, no quiero dejar en el olvido, sino resaltar de manera solemne, la labor responsable y concienciosa desarrollada por el azpeitiarra Julian Elorza Aizpuru en pos de la creación de Euskaltzaindia. Me gustaría dejar constancia ante ustedes de que, como presidente de la Diputación de Gipuzkoa entre 1919 y 1924, él fue uno de los artífices e impulsores de la academia vasca. El 21 de septiembre de 1919, la academia celebró su reunión constitutiva en esta casa, y quince días más tarde, el 7 de octubre

del mismo año, llevó a cabo su primera sesión académica en una sala de este palacio. Los guipuzcoanos nos sentimos orgullosos de la vinculación que desde el primer momento tuvieron sus instituciones forales con la academia de la lengua vasca.

He aquí, por tanto, una de las mayores riquezas que esconde nuestra institución académica desde su propia fundación: el amor hacia la lengua vasca, la pasión por su investigación y normalización, el impulso de su uso y extensión, *izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea* [el cultivo y tutela tanto lingüística como social de la lengua vasca], como reza literalmente en los estatutos fundacionales de Euskaltzaindia, están ligados a una amplia y abierta visión cultural, que está por encima de las ideologías y la política.

La victoria del alzamiento militar del general Franco llevó a la cultura vasca y al País Vasco en general a uno de los períodos más oscuros de su historia. Supuso un desgarro terrible para toda la sociedad vasca, también para Euskaltzaindia. Fue entonces cuando se alzó la figura de R.M. Azkue, para superar todas las adversidades del asfixiante clima que dejó la Guerra Civil, y retomar paulatinamente las tareas de la academia. El franquismo supuso una persecución tenaz, obstinada y sistemática de todo uso, público o privado, de la lengua vasca. No deberíamos olvidarlo, pues la desmemoria para nada nos beneficia, ni en el terreno de la lengua, ni en ningún otro orden de la vida pública o social, ni nos ayuda tampoco a encarar los actuales problemas de la lengua vasca. Es más, creo que algunos de los obstáculos a los que el euskera debe hacer frente hoy en día están relacionados en alguna medida con aquella nefasta etapa de nuestra historia reciente.

No fue fácil para Azkue trazar un camino en el que la academia pudiera avanzar: la guerra dejó profundas heridas en la sociedad vasca; las instituciones académicas, entre ellas la Sociedad de Estudios Vascos, estaban prácticamente disueltas; y todo lo que pudiera hacerse en euskera se hallaba bajo la sospecha amenazante de los nuevos gobernantes. Azkue contó con la inestimable ayuda del joven Federico Krutwig, quien supuso por primera vez para la academia un vínculo, aunque no fuera más que simbólico, entre dos generaciones de vascófilos.

En aquel clima desmoralizador, Euskaltzaindia hubo de hallar su propio camino, adaptándose a las nuevas circunstancias, al tiempo que buscaba recobrar la identidad, conciencia y cultura del Pueblo Vasco. Tras la muerte de Azkue, el ingeniero Ignacio María Etxaide Lizasoain, primero, y el abogado José María Lojendio Irure, después, colaboraron grandemente en la buena dirección de la Academia, poniendo su adhesión a la lengua vasca por encima de las vinculaciones con las autoridades franquistas.

Cuando el sacerdote oiartzuarra Manuel Lekuona accedió, en 1967, a la presidencia de la academia, se rumiaba ya un renacimiento de la cultura vasca en prácticamente todos los ámbitos: en el literario, Andima Ibiñagabeitia había comenzado con la publicación de libros en lengua vasca, primero en el extranjero, enseguida en el País; grupos de padres y profesores se organizaban, de forma cada vez más manifiesta, en multitud de localidades a favor de la enseñanza en euskera. Resultaba de día en día más evidente la necesidad de acomodar la lengua vasca para sus usos modernos.

Quisiera ahora destacar la importancia de la figura del lingüista renteriano Koldo Mitxelena, quien, sin llegar nunca a presidir la Academia, jugó en cambio un papel crucial en la creación de un vascuence estándar o unificado, adaptado a las necesidades del mundo moderno, con una visión al mismo tiempo equilibrada y audaz, sin dar la espalda a nuestra tradición literaria, pero tendiendo un sólido puente con las generaciones futuras. Mitxelena llevó de manera magistral a la Academia por la senda de la modernidad, con la mirada puesta en el pasado, pero para construir el futuro. La obra de Mitxelena no se limitó, en cambio, a construir el *euskara batua* [lengua vasca unificada]; Mitxelena hizo mucho más: dejó marcada la senda futura de la lengua vasca estándar, pues su inquietud no le llevó solo a preguntarse «¿qué necesitamos?», sino, al tiempo, se cuestionó también «¿para qué lo necesitamos?».

«Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los pueblos, así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo sin aventuras maximalistas», escribió Mitxelena en 1978, en un artículo magnífico titulado «El largo y difícil camino del euskera». Creo que las dos condiciones que

Mitxelena propuso en esa breve frase siguen teniendo plena actualidad, respecto al futuro del euskera: sin maximalismos, debemos acordar un espacio suficiente a la lengua vasca, para asegurar así su preservación en generaciones futuras.

Ese euskara batua que en muy buena medida debemos a Mitxelena constituyó un hito trascendental en el ámbito vasco, en eso que, con visión cultural amplia y abierta de miras, llamamos *Euskal Herria*. Al tiempo de construir un modelo estándar de lenguaje, ayudó también a cultivar una nueva conciencia en toda una joven generación, que abrió la lengua vasca a la modernidad, alcanzó la oficialidad en ámbitos públicos y oficiales, al hilo de los cambios sociales y políticos, y puso los cimientos para que se convirtiera en realidad el gran desarrollo que conoció el euskera en las últimas décadas del siglo XX.

La historia de la Academia desde entonces nos es más cercana y conocida, por lo que no quiero extenderme en cuestiones que están en la memoria de todos. Permítanme, sin embargo, hacer algunas breves consideraciones sobre los grandes pasos que la Academia ha dado bajo la dirección de Luis Villasante, Jean Haritschelhar y, en la actualidad, Andres Urrutia, y sobre el camino que, en mi humilde opinión, deberá recorrer en el futuro.

La primera de mis consideraciones está relacionada con la vocación de nuestra Academia. Euskaltzaindia ha sido desde su fundación hace ahora 90 años una institución abierta, al menos en dos sentidos: por un lado, debe acoger las diferentes miradas de la sociedad en todo el ámbito de la lengua vasca, y mostrar así que hay muy diversas maneras de ser y sentirse *euskaldun* [vасcoparlante]; y por otro lado, debe prestar atención a las necesidades de la comunidad lingüística, y responder de una forma amplia y abierta a las necesidades de quienes queremos que nuestra lengua sea utilizada en todos los ámbitos de la vida social. La Academia de la Lengua Vasca no puede convertirse en un espacio cerrado, reservado a especialistas, sino que debe actuar al servicio de la sociedad, optando por un desarrollo adecuado de la lengua, protegiéndola y cultivándola.

Mi segunda consideración tiene que ver con las nuevas posibilidades que se abren en el futuro. En muy pocos años, las tecnologías han dado pasos

gigantes en el desarrollo de herramientas de tratamiento de las lenguas, que abren enormes posibilidades, hasta ahora impensables. Creo que nuestra Academia no puede permitirse dar la espalda a las exigencias de la sociedad de la información y el conocimiento, sino que, al contrario, debe liderar la exploración de los nuevos espacios que la tecnología de tratamiento de las lenguas nos ofrece. Justo es reconocer que Euskaltzaindia ha dado pasos decididos en los años precedentes: las normas académicas, el diccionario normativo, sus principales publicaciones, el corpus estadístico, el nomenclátor, etc., son accesibles en la red, en la mayoría de los casos sujetos además a una licencia libre de uso público, con una política abierta por la que no puedo sino felicitar a la Academia. Quisiera hacer un llamamiento a Euskaltzaindia para que lidere esa vía, y acierte con prontitud e inteligencia a afrontar los retos que nos establece el siglo XXI, de la misma manera en que durante el siglo XX consiguió superar el desafío de una lengua unificada.

Mi tercera y última consideración se refiere a la participación de la mujer en las actividades académicas. Si mi cuenta es correcta, de los 29 académicos de número, a día de hoy cinco son mujeres. Tal vez represente un número reducido, pero por encima de ello me gustaría resaltar que, por un lado, la aportación de las mujeres resulta en la actualidad imprescindible para llevar adelante las actividades académicas; y por otro, que la participación de la mujer es cada vez más amplia y numerosa en todos los niveles de la academia. No dudaría en decir que la sociedad aceptará de buen grado todos los pasos que se den en la dirección de llegar a una situación más equilibrada o –quién sabe– tener algún día una presidenta de la Academia.

«Buscar condiciones más favorables, hacer por sacarlas de la nada si es necesario, será menester de planificadores del presente y del futuro, en otras palabras, de políticos en el sentido más amplio de la palabra», dejó escrito Mitxelena en 1978, señalando de manera precisa el compromiso de quienes, desde la política, deseamos asegurar un futuro a una lengua pequeña como el vascuence. La Diputación Foral de Gipuzkoa pondrá todo su empeño, ayer, hoy y mañana, para encontrar esas condiciones favorables al uso social de la lengua vasca, o para sacarlas de la nada si preciso fuera, y alentar así una política para el euskera en su sentido más amplio.

El 21 de septiembre de 1919, el entonces presidente de la Diputación, Julian Elorza, cedió su asiento a Resurrección María de Azkue, para que presidiera en esta misma sala la sesión constitutiva de la Real Academia de la Lengua Vasca. Hoy, en este acto de celebración de su 90 aniversario, cedo mi sillón de Diputado General a Andres Urrutia, presidente de Euskaltzaindia.